

## 16.919.000 euroko aurrekontua 2010erako

Krisiak kolpatutako aurrekontuak badira ere, lehenasunezko proiektuak gauzatzeko esfortzu berezia egin du Udalak

2010 urterako aurrekontuak onartu ditu Udalak: 16.919.000 eurotako aurrekontua izango du Oiaritzunek aurten. Krisi ekonomikoak kolpatutako aurrekontuak dira, batez ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Fondo Foraletik eta eraikuntzatik jasozten zen dirua asko murriztu delako.

Hala ere, Udalak esfortzu berezia egin du lehenasunezko proiektuak garatu ahal izateko. Horietako asko gauzatzeko, Aldunditik, Eusko Jaurlaritzatik eta Espainiako Estatutik jasotako diru laguntzak baliatuko ditu.



Arragua zaharraren biziberritzea; Udal Ikastola Partzuergoa; atez ateko bilketa sistema; beilatoki publikoa; Arditurriko meategietako bigarren fasea; Penadegiko ur biltegia berritzea eta herri bideak konpontzea izango dira aurtengo erronka nagusienetako batzuk.

Foru Aldunditik, Eusko Jaurlaritzatik eta Espainiako Estatutik jasoko dira laguntzak proiektu batzuk garatzeko.

**OBk ez du aurrekontuak egiteko prozesuan parte hartu nahi izan**

Udal Gobernu Taldeak OiaritzunBaik aurtengo aurrekontuak egiteko prozesuan eduki duen jarrera salatu nahi du. Abenduan aurrekontuen zirriborroa eta beharrezko azalpenak eman zitzaizkien, aztertze denbora eduki zezazten eta euren ekarpenak egin zitzazten.

Urtarrilean, asteartero Ogasun Batzordean parte hartzeko aukera ere eskaini zaie. Bilera bakarrera agertu ziren, eta ekarpenik ez zuten egin. Hala ere, egindako lanaren kontra bozkatu dute.

## Udalak herritarrekin adostu nahi du hondakinak atez ate biltzeko zintzilikailuen kokapena

Landa eremuko bizilagunek ere badute beren apartazio-gunea ezagutu eta proposamenak egiteko aukera

Oiaritzungo Udalak badu hondakinak atez ate biltzen hasteko etxe atarrietan jarriko diren zintzilikailuen kokapen-proposamena. Irizpide teknikoetan oinarrituta, etxe atari bakoitzerako proiektu bana landu du, eta herritarrek otsailaren 8tik 19ra arteko epea dute proposamenak ezagutu eta ekarpenak egiteko. Hala nahi duena, Done Eztebe plazako atez ateko informazio bulegotik pasa liteke 09:00tik 13:30era eta 15:30etik 19:00ra.

Bizitza bat baino gehiagoko etxeetako lehendakari eta administrariak eskutitza jaso dute, honen guztia berri izan dezaten. Helburua udal proposamenak ezagutu eta bizilagun guztien artean adostutako ekarpenak egitea da. Etxebakarren kasuan, norberak bere kabuz egin dezake proposamena ezagutu eta apartazioak egiteko bidea.



Zintzilikailuak zutabe moduan edo paretean jar daitezke.

### Gaueko zerbitzua Lezoko udaltzainekin emango da

Oiaritzungo eta Lezoko udaltzainak gaueko zerbitzua elkarrekin ematen hasi dira. Krisi ekonomikoak Udalen aurrekontuetan eragin dituen murrizketen ondorio izan da zerbitzua elkartzea, "gastuak murriztu behar genituelako baina ez genuelako gaueko zerbitzua kendu nahi, beste herri batzutan hala egin badute ere". Bi Udaletan dauden baliabideak hobeto kudeatzeko egin da hitzarmen hau. Oraingoan, urtebeterako hitzarmena sinatu dute bi Udalek.

### Aholkularitza zerbitzua Gazte Bulegoan

Dagoeneko jarri da martxan Gazte Informazio Bulegoko Aholkularitza saila. Ostiraleroko, Askagintzako aditu batek drogen eta sexuaren inguruan herriko gazteek dituzten zalantzak eta galderak erantzuten ditu. Zerbitzu berri hau eskaintzen hilabete honetan bertan hasi dira Mendiburu kaleko bulegoan. Aholkularitza zerbitzua erabili nahi duenak, aldeztu aurretik hitzordua hartu behar du Gazte Informazio Bulegoan, 943 49 11 05 telefonora deituta edo emailaz: gazteinfo@oiartzun.org-n.

### Udal zerbitzuak ere atez atekora egokituko dira

Gune urbanoko nahiz landa eremuko bizilagunekin, merkatariei zein ostalariekin, elkarrekin... egon ostean, atez ateko informazio bulegoko teknikariek ekin diote udal zerbitzuetako langileak informatu eta beren beharrik identifikatzeari. Atez ateko hondakin bilketak herritar ororen partehartzea behar du eta udal zerbitzuek horretarako erraztasunak eskaintzea ezinbestekoa da. Horregatik, ikastetxeetan, kiroldegian, zaharren egoitzan... hondakinak egoki sailkatzeko baliabideak jarriko dira.

## ZENBAT BURU, HAINBAT ABURU

### Ez naz enteatu!

Gaizka Lasa Larraya. Kazetaria.

Ez naz enteatu! Sarritan esan edo entzuten dugu esaldia, gehienetan tonto aurpegia dela medio. Pekatu larria XXI. mendeko Oiaritzunen. Garai batean, tira, baina gaur... ez ta pentsatu ere! Komunikazioaren aroan bizi garela, edo bizi beharko genukela, esan zuten ba adituek. Enpresa eta erakundeek aintzat hartu zuten nonbait iragarpena eta komunikazioa da gaur egun batzuen eta besteen arma nagusietako bat. Informazio tonak dauzkagu gure esku egunero, era guztietakoak eta jatorri desberdinetakoak. Helburuak ere, ugari. Denak zilegiak, batzuk besteak baino sanoagoak badira ere.

Kontuak kontu, zorionekoak gu, herritarrok. Urrutira jo gabe urruti iris gaitzke informazioari esker. Inguruan gertatzen diren gauzen ezagutzara, esan nahi da. Nere amona datorkit burura, eta zuetako asko ere gogoratuko zarete zuenaz. Etxetik asko irten gabe zenbat ikasgai ez ote dizkit eman sukaldako epelean. Buzoiko paper guztiak ondo irakurri, irratia adi entzun, udaletxera deitu behar izanez gero eta... eskerrak internet erabiltzeko adina pasa zaion. Jakinmina ondo elikatzen zuen garai batean nahiz eta behar askorik ere ez izan. Izan ere jakinduriak ez du tokirik betetzen. Hala dio esaerak.

Tokia ez du kentzen eta gainera hainbat disgustu, solasaldi merke eta alperrik egindako gestioak aurrezten ditu. Sar gaitzen adibide konkretuen mundu errealean. Atez ateko bilketa. Nork ez du beraren berri izan azken hilabeteetan. Baina, atez ate joango bagina zer esan nahi duen, nola bideratuko den edo zein helburu bilatzen dituen galdezka, aurkituko al genituzke erantzun garbiak? Baietz pentsatu nahi det, aipatu informazio kanpaina horien defendatzaile naizenez gero, baina ez pentsa oso seguru nagoenik. Zalantzarik ez dut ordea hamaika eztabaida piztu dituela gaiak, ez argudio serioz betetako horiek, ideia ezak gaitzotzen dituen horietakoak baizik. Alegia, etxe aurrean aurkitzerakoan zaborra nola atera ez dakien tonto aurpegi asko izango dela.

Adibide xumea da, baina esanguratsua. Egunerokoan bizitzeko informazio beharra dugu. "Bekoplazako egurrezko txabola hori zer ote da?" Edo, "kale mozketak horrek noiz arte iraungo ote du?" "Eta zergaitik?" Edo, "zergaitik ote dago kiroldegi inguruan horrenbeste haur gaur arratsaldean?" Eta, erantzunik aurkitzen ez dugunez, haserre. Kasketa ez denean. "Honi laguntza eman omen diote konposterako eta beste horri etxebizitza tokatu. Tranparen bat egingo zuten ba". Diru kontutaz ari garenean, edota osasun arloan sartzen bagara, are eta garrantzitsuagoa bihurtzen da ondo informatua egotea.

Ba hori, informazioa beharrezkoa dugula. Eta beharrezkoa ez denean ondo dator. Bizitza errazten du. Aukerak ematen ditu. Azken finean, eta ez da gehiegikeria, hainbeste ahotan dabilen bizitza kalitatea bermatzen du. Gure herrian badira informazioa bideratzeko hainbat modu: Udala informatzen, Oiaritzun Irratia, Oarsoaldeko Hitza, Gotti Betti aisialdirako agenda, Oiaritzun gazteen bloga, eta Aski Prexko! gaurkotatzen lehi berri hau, batzuk aipatzearen. Eta erreztasunaren gaindia berri, web orria. Oiaritzun.org 24 orduz irekita dago informazioa mozkortu arte kontsumitzeko. Eta debalde. Oraindik ere tonto aurpegia jarri behar al degu?

Eta bukatzeko, serio jartze aldera, informazioa opari bat baino gehiago eskubidea dela jakitea komeni. Nola gutxietsiko dugu ba! Ez onartu bakarrik, exijitu baizik. Informazio eza dugunean baitatuz gaizkiulertuak eta iruzurrak. Gardentasunaren izenean azalpenak eskatu behar ditugu, erakunde publikoetat ari garenean batez ere baina baita sektore pribatuari ere. Eta gaurko aurrerapenei esker, informazioaren zabalkunde ere parte har genezake. Denen artean eraikitako gizarte lortuko genuke horrela. Benetakoa. Osasungarria. Informazioa den bezelaxe.

## IZASKUN ZUBIZARRETA: 'Mendia aisia da niretzat'

Neguan gaude eta aurten nahiko gordin etorri zaigu, gainera! Hala ere, Oiartzunen bada inolako nagis eta hotzik gabe neguari harrera beroa egin dionik ere. Izaskun Zubizarreta (1970-09-30) mendi-eskiatzailea dugu horren adibide.

**Hogeita zazpi urterekin hasi zinen mendi-eskia praktikatzeko eta hogeita hamaseirekin lehiatzen. Zure kirol ibilbidea berezi xamarra izan dela esan al genezake?**

Berezia ez, oso berezia izan da. Betitik gustatu izan zait kirola, baina gure garaian, neskak ez genuen Oiartzunen bertan kirola egiteko aukerarik. Mutilak futboleko jolasten zuten bitartean, guk solfeoa eta akordeoia edo pianoa ikasten genituen.

Hala ere, esan bezala, gazte-gaztetatik gustatu izan zait kirola eta batez ere, mendia, korrika egitea eta errepideko bizikleta. Institutu garaian Leire Mendizabal eta beste bi errenteriarrekin eski alpinoa praktikatzeko hasi nintzen Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako irteera batzuetan. Xoxak falta genituen, ordea, nahi adinatan joateko! Ikasketak bukatuta hasi nintzen bidaiatzen, alturako mendia oinez egiten eta hortik, mendi-eskia praktikatzeko.

**Hori bai, lehiatzen hasi bezala lortu dituzu postu onak...**

Egia esan, hasiera hartan, ez nuen entrenamendu jakinik ere izaten. Euskal Herriko txapelketan bigarren postua eta Espainiako krono-igoeran hirugarrena lortutakoan hasi nintzen horretan.

Errepideko bizikletan eta mendian korrika ibiltzea da entrenamenduaren parte nagusi bat eta, hara nola diren gauzak, orain entrenamendu eta lehiara "engantxatuta" nagoela esan dezaket. Izan ere, niretzako eskia mendia egiteko modu bat gehiago da, eta aldapan korrika nahiz bizikletan mendateak igotzen ere gozatu egiten dut.

**Dena, ordea, ez da kolore arrosakoa izango. Zer moduz zabiltza lesioei dagokienean?**

Munduko Txapelketa bigarren lehian lehiatzen leionatu egin nintzen. Lotailu-haustura izan nuen belaunean. Eta, egia esan, luze xamarra izaten ari da errekupezioa.

Ebakuntza eta errehabilitazioa egin ondoren,



berriz hasi zitzaidan belauna huts egiten eta 2008ko Donostiako Maratoian ez aurrera ez atzera geratu nintzen. Sendagileek esan zidaten pausua gaizki ematen nuela eta horrek eragin zidala lesioaren berritzea. Kontua da, belauna ez ezik, femurra ere ukituta nuela.

Bi hilabete pasatu ditut makuluekin, eta orain gutxi hasi naiz piszina eta arrabolan ibiltzen. Berriz operatu behar naute belaunetik eta gogor xamarra egiten ari zait itxarotea. Kirolaren biran mugitzen da nire bizimodua (lagunak, bidaiak...) eta kosta egiten zait hortik aparte ibiltzea.

**Lesioez gain bestelako zailtasunik izaten al duzue? Zer moduz ibiltzen zarete laguntza aldetik?**

Mendi-eskia ez da kirol olimpikoa eta horrek laguntza murrizten izatea dakar.

Nire kasuan, diru-laguntzak jasotzen ditut Espainiako Federaziotik, eta Kirolgi nahiz Bat Basque Team-etik.

Hala ere, nik ez dut diruagatik egiten. Esan dugun bezala, ni berandu hasi naiz lehiaketa munduan eta ordurako nire bizimodua antolatuta nuen. Hori bai, jende gazteak kasu eta laguntza gehiago merezi duela uste dut.

**Profesioz emagina zara. Zaila al da oheak eskiekin uztartzea?**

Elizondoko anbulategian egiten dut lan eta dudan ordutegiak aukera ematen dit denetarako denbora izateko.

2008/09ko neguan eszedentzia eskatu nuen entrenatzeko eta oso gogorra egin zitzaidan. Elurretan entrenatu ahal izateko etxetik kanpo pasa behar dut denboraldi bat eta bakarrik egote hori ez dut oso gustuko. Gainera, beti elurretan ibiltzeak ere nekatzen nau. Nahiago dut elurra, korrikaldiak... txandakatzea.

**Iruñea eta Donostia artean bizi zara, eta udan Argentina aldera alde egiten omen duzu elur bila. Oiartzuna bisitan etortzeko astirik izaten al duzu?**

Astean behin Elizondotik Lesakako anbulatorio-ra joaten naiz lanera. Egun hori aprobetxatzen dut Oiartzuna etorri eta ama, ahizpa eta ilobak bisitatzeko.

## Klixk!

### Kaldereroak, Artzainak eta Inudeak

Ibargain Flauta Taldeak antolatuta, urtarrileko azken asteburuan musika hotsa zabalduta zen herriko kaleetan barrena, inauterien iragarle. Lehenengo, Hungariatik etorritako kaldereroek egin zuten bisita, euren jantzi koloretsuekin. Igande goizean, berriz, Artzain eta Inudeak izan ziren protagonista. Aurtengoan, Joseba Bert eta Igone Lazkano izan dira Artzain eta Inude Nagusiak, jaiaren protagonistak.



### Ihote Festa, Aiako Harrietatik bisitan

Otsaileko lehenengo asteburuan egin dute aurtengo bisita in-txixuek eta sorginek. Aiako Harria utzi eta Doneztebe plazaren jaun eta jabe bihurtu dira asteburu batez. Larunbatean, aldiz, poxpolinez eta zuri-gorritz jantzitako dantzariak kuestazioa egin zuten auzoz auzo.



### TELEFONO BALIAGARRIAK:

- Udaleko informazio bulegoa: 943 49 01 42
- Udaltzaingoa: 943 49 33 11
- Taxia eta taxibus: 943 49 14 74
- Iparbus eta Xorrola: 943 49 18 01
- Eusko Trenbideak: 902 543 210
- Elorsoro udal kiroldegia: 943 49 25 52
- Manuel Lekuona udal biblioteka: 943 49 38 64
- Osasun Zentrua: 943 49 11 01 / 943 49 26 04
- Elizalde Herri Eskola: 943 49 01 93
- Haurtzaro Ikastola: 943 49 16 59

### GUARDIAKO FARMAZIA:

**Otsailaren 12tik 19ra**  
Gorostiaga, Milagros • Lartzabal etxadia, z/g • 943 49 43 48

**Atez ateko zalantzak argitzen:** Bidali zure galdera atezate@oiartzun.org helbidera eta ikusi guztiak webgunean: www.oiartzunatezate.org

#### Zer da materia organikoa?

Garai batean txerrijana zeritzona. Sukaldatu zein sukaldatu gabeko janari soberakinak; arrautza, marisko eta fruitu lehor oskolak; fruitu azalak; kortxo naturala; sukaldeko paper eta zapiak...

#### Zenbat hondakin frakzio jasoko dira berezita atez ate?

Lau: materia organikoa, papera/kartoia, ontzi arinak eta errefusa (birziklagarriak ez diren hondakinak). Beira iglu berdean botatzen jarraituko dugu, orain arte egiten dugun bezala.

#### Zer dira aportazi-guneak?

Aportazio-guneak landa-eremuko herritarren zerbitzura egongo diren etxola itxiak dira. Zintzilikailurik izango ez duten bizilagunek bertara sartzeko giltza izango dute eta bertan utziko dituzte beren sailkatutako hondakinak.